



aztiker
SOZIOLOGIA IKERGUNEA



ATAUNGO UDALA

ZAHARTZARO EREDU BERRIAZ, FUNTZIO, ROL ETA BALIO BERRIAZ HERRITARREKIN HAUSNARKETA

Egungo paradigmen balorazioak eta etorkizunerako
berrikuntza aukerak eta beharrak

Iritziak eta balorazioak: elkarrizketa mahaiak



AURKIBIDEA

SARRERA	3
ZAHARTZARO EREDUA GAUR EGUN	5
EGUNEROKO BIZITZA ETA HERRI BIZITZA	5
BIZITZA BETEAK	6
FAMILIA ETA INGURUNE SOZIALA	7
ATAUNEN KOMUNITATE BIZITZA	7
ATAUNGO BALIABIDEAK, GUNEAK ETA EGITURAK	11
ATAUNEN HERRI ERRONKAK	13
ZAINZA	13
BELAUNALDIARTEKOTASUNA	15
HARREMAN SOZIALAK.....	16
ATAUNGO UDALAREN PAPERA 3. ADINEKO PERTSONEKIN	17
ZERBITZUAK.....	17
ETORKIZUNeko ZAHARTZAROAZ HAUSNARTZEN	18
ONDORIOAK	19
ONDORIO NAGUSIAK IRUDIETAN	22




SARRERA

Hurrengo orrialdetan Ataungo zahartzaro eredu berriaz, funtzio, rol eta balio berriaz herritarrekin hausnarketa prozesuaren baitan egindako elkarrizketen emaitzak jaso dira. Zahartzaroaren inguruko begiradak, iritziak eta aurrera begira eraldatu daitezkeen hainbat ezaugarri eta gakoan azalpena ematen da. Aipatutako edukia, 2024ko azaroaren 5a eta 21 bitartean hainbat pertsoneri egindako elkarrizketetatik sortu du Aztikerrek. Elkarrizketatan jasotako ideiak eta iritziak, ordenatu eta antolatu dira, aurrera begira erabakiak hartzeko lagungarri eta beharrezkoak direlakoan.

Horretarako 5 elkarrizketa burutu dira, honako ezaugarriekin:

Xede taldea	Emakumeak	Gizonak
Jubilatu antolatuak	4	2
Jubilatu gazteagoak	3	2
Elkartegintza	3	2
Profesionalak	2	1
Profesionalak	1	

Elkarrizketak diseinatzerakoan honakoak izan dira irizpide:



- **Elkarrizketa mahaiaren helburua:** Ataunen Herri lanketa bat abiatzea:
 - Herri erronkak eta horietan nagusiek ekarpena eta rola; nolako zaintza eta zerbitzuak nahi/behar dira herritar nagusientzat?
 - Ataunen herri erronkak eta herritarren bizi kalitatea eta duintasuna bermatzeko zerbitzu publiko eta ekintza komunitario zehatzak identifikatzea
 - Ekintza komunitario sareak identifikatzea eta horiek josteko gakoak antzematea: herriko eta herritarren hainbat behar antzeman eta horietan adinekoen aldetik ase daitezkeen modua zirriboratu
- **Anonimotasuna:** elkarrizketan aipatzen direnak prozesu honetarako bakarrik erabiliko dira eta inoiz ez dira norberak esandako hitzak bere izenarekin lotuko.
- **Elkarrizketa eredia:** beraien arteko solasaldi eta interakzioa bilatu da iritzi trukaketa eta iruditegi konpartitua jaso ahal izateko. Aurrez prestatutako gidoi bat ildo bezala hartu da elkarrizketetan gai eta ildo berdinak jorratzeko asmoz baina elkarrizketa libreari lekua utzita.

Elkarrizketak honako hiru ardatz nagusien inguruan antolatu dira:



- ZAHARTZARO EREDUA GAUR EGUN: Egoeraren azterketa.
 - Eguneroko bizieta eta Herri bizieta
 - Familia eta ingurune soziala
 - Ataunen komunitate bizieta
 - Komunitatea eta zaintza
 - Zaurgarritasuna-Zaintzak-Bakardadea
 - Ataungo baliabideak, guneak eta egiturak
- ATAUNEN HERRI ERRONKAK
 - Ataungo 3. adineko pertsonentzat erronkak
 - Ataunek hirugarren adineko pertsonen beharrak
 - Etorkizuneko zahartzaroz hausnartzen
 - Herritar nagusiak eta bizieta aktiboa
- ATAUNGO UDALAREN PAPER 3. ADINEKO PERTSONEKIN
 - Zahartzaroz eta politika publikoak
 - BIZITZA ZAURGARRIAGOAREN ZIKLOAN

Txostena honako puntu bidez garatua azaltzen da: lehenik, Zahartzaro eredua gaur egun; Ataunen herri erronkak eta Ataungo udalaren paper 3. Adineko pertsonekin. Azkenik, ondorio nagusien atala azaltzen da, jaso diren ideia nagusiak eta gakoak laburpen batean bildurik.



ZAHARTZARO EREDUA GAUR EGUN

EGUNEROKO BIZITZA ETA HERRI BIZITZA

Ataungo adineko pertsonen abanikoa zabala da, hau da, egoera desberdinak dituzten pertsonak daude autonomia mailaren, adinaren, generoaren eta bizi diren auzoaren arabera.

Desberdintasun nagusia autonomoak diren pertsonen eta erabat autonomoak ez direnen (menpekotasunen bat dutenak) artean dago. Orokorrean, autonomoak diren pertsonak aktibo daude, kalean ikusten dira (paseoan, erosketak egiten, atsedentokian...) eta gustukoak dituzten jardueretan parte hartzen dute (bingoa, korua, karta-jokoa, ikastaroak, irakurle taldea...). Ariketa fisikoa egiteak eta norbere buruaren zaintzak ere garrantzia dute beraien egunerokotasunean (paseoak, mendi bueltak, bizikletan ibiltzea...). Baserrian bizi direnentzat, baratza edota abereak zaintzea garrantzitsua da, eta batzuk familiako kideen zaintzaz ere arduratzen dira (gurasoak nahiz bilobak zaintzen dituzte). Oro har, bizitza aktiboak dituzte, eta aspertzeko denborarik ez.

Erabat autonomoak ez direnak berriz, mugatuago daude, beraz, ez dute hain bizitza aktiboa. Talde honetako batzuk oso gutxitan irteten dira etxetik (gaixorik daudelako edo beste arrazoi batzuegatik) eta horiek dira kezka gehien sortzen dutenak, ez baita beraien egoera ezagutzen eta isolatuta geratzeko arriskua baitute. Ez dira gehiengoak, baina badaude kasu puntualak egoera zaurgarrietan: familiarik ez duen eta baliabide gutxi dituen jendea, bakarrik dagoena. Pertsona hauek zailtasunak dituzte egunerokotasuneko zenbait ekintza egiteko (adibidez, erosketak egiteko). Kasu hauetarako laguntza batzuk daude eta agian pertsona bat joaten zaie bi orduz etxera, baina egunak ordu asko ditu eta bakarrik egoten jarraitzen dute.

Autonomo eta ez autonomoen arteko banaketak badu lotura adinarekin. Lehen, 60-65 urtetik gora zituzten guztiak hartzen ziren adinekotzat; orain, ordea, aldea ikusten da 60-80 urte dituztenen eta 80 urtetik gora dituztenen artean. Lehenengo taldean, oro har, autonomoak eta bizitza aktiboa dutenak daude, eta bigarrean, beren egoera fisikoagatik mugatuago daudenak.

Eguneroko bizitzari dagokionez, generoen artean ere aldea dago, batez ere, 80 urtetik gorakoen artean. Esaterako, adin horretako emakume askok ez dute gidabaimenik eta horrek norberaren autonomian eragiten du (Ataun bezalako herri batean bereziki, sakabanatutako auzo eta baserrietan bizi baita jendea). Ataunen badago garraio publikoa, baina kasu batzuetan ez da nahikoa, eta emakume hauek senarraren edo seme-alaben mende geratzen dira toki batetik bestera autoz joateko. Aldiz, elkarrizketatuen ustez, alarguntzean gizonak emakumeek baino autonomia arazo gehiago izaten dituzte. Aisialdiari dagokionez ere, emakumeak eta gizonak espazio berezietan ibiltzen dira. Adibidez, atsedentokian erabiltzaile gehienak emakumeak dira, baina atsedentokiko juntan gizonak dira ia denak. Taberna berriz, gizonen espazioa da.



Generoen artean dagoen desberdintasun nabarmenena zaintza lanekin lotuta dago. Adineko emakume askok zaintza beren eginbehar bat bezala hartzen dute, jasan beharreko zerbait balitz bezala, baita norbera ondo ez dagoenean ere (osasunagatik, harremanengatik...). Hala ere, gaur egun, gaizki daudela ohartzean lehenago eskatzen dute laguntza. *“Pero llegan a ese extremo, berez lehenago izan beharko zan”*. Gizonezkoek berriz, errazago eskatzen dute laguntza beste norbait zaintzen ari direnean; ez dira emakumeak bezain beste inplikatzeko. Gizartea eta pentsaerak aldatzen ari dira, baina oraindik zaintza lanak emakumeen gain daudela ikusten dute elkarrizketatuek.

Auzoen artean ere desberdintasunak daude bizimoduari dagokionez: *“Es que ez dauke zerikusik plazan bizi o gure auzoko baserri baten bizi o hemen goran bizi.”* San Martineko adineko jendeak atsedentokia du, San Gregorion soziedadean elkartzen dira (hau, jarduerak egiteko espazio bat baino, topagune bat da), eta Aian ez dute horrelako espaziorik. Elkartzeko espazio huez gain, San Martinekoek eskuragarriago dituzte zerbitzu guztiak eta beste auzoetakoak kotxearen edo garraio publikoaren menpe daude.

BIZITZA BETEAK

Bizitza betea izateari dagokionez, harreman sozialak izatea ezinbestekotzat jotzen dute elkarrizketatuek, eta hori herrian errotuta egotearekin lotzen dute hein handi batean. Hala ere, norberarentzat denbora izatea ere oso garrantzitsua da beraiarentzat. Bestalde, norberaren gustuko jarduerak egin ahal izatea ere beharrezkoa da bizitza betea izateko. Horrek ez du esan nahi bizitza oso aktibo bat eman behar dutenik, izan ere, bizitza betea aktiboa izan daiteke batzuentzat, baina beste batzuek bizitza pausatuagoa nahi dute. Laburbilduz, norberak bere erabakiak hartzeko eta bere bizitzarekin nahi duena (ahal duen neurria) egiteko aukera izan behar duela aldarrikatzen dute: *“Nei haste zaijan garaien aldamenetik jendea: hau in behar zenduke, hura in behar zenduke... ¡Alto! Oaindio kapaz naiz nik nahi deana iteko. ¡Que no me entierren viva! (...) Ahal dean bitarten utziazue mesedez nik nahi deana iten”*.

Bestalde, norberaren zaintzari garrantzi handia ematen zaio, adina baino erabakigarriagoa baita osasuna bizitza betea izateko. Osasuntsu egotea garrantzitsua da, baita besteei begira ere: *“Norbea ondo eon behar da, behar baldin badezu ingurukoi zaintzeko ere”*. Beraz, ariketa fisikoa egitea (paseoak, mendi-bueltak, bizikleta...) eta burua lantzea (irakurri, idatzi, informatuta egon...) beraien egunerokotasunaren parte dira.

Bizitza betearen ideiarekin jarraituz, elkarrizketatuek adierazi dute jubilazioak bizitza aldatzen duela eta aldaketa horretarako prestaketa moduko bat falta dela. Izan ere, pertsona batzuk galduta sentitu daitezke jubilatzeko direnean: *“Pertsona bat bere bizi guztie lanen besteik aitu eztana, gero asko ta asko gelditzen die ze in eztakiela”*. Generoak badu honetan eragina, tradizionalki gizonen identitatea lanari lotua egon baita. Horregatik, elkarrizketatuen hitzetan, jubilatzeko gizonak galduago sentitu izan dira emakumeak baino.



FAMILIA ETA INGURUNE SOZIALA

Familiak garrantzi handia du Ataungo eguneroko bizitzan, hirugarren adinekoek badute aitortza bat familiaren baitan eta harreman familiar estuak izan ohi dituzte.

Biloben zaintzan paper garrantzitsua betetzen dute aiton-amonek, batez ere, bilobak txikiak direnean. Baina baita beste adineko pertsonen zaintzan ere (askok beren gurasoak zaindu/zaintzen dituzte). Elkarrizketatu batek esan bezala: "Edadeko jendea ari da edadeko jendea zaintzen". Beraz, "Ataungo familiak badaukate inplikazio potente bat zaintzan gaur egun eta, batez ere, jarraitzen dute izaten emakumezkoak". Adineko pertsonen zaintzari dagokionez, ahal den bitartean, adinekoak etxean mantentzeko joera nagusitzen da. Ataungo etxe asko familia bakarrak edo baserriak dira, eta espazio hori izateak aukera ematen du adinekoak etxean zaintzeko (familiak edo zaintzailereren batek zainduta).

Hala ere, familia eredua aldatzen ari da eta, beraz, baita zaintza eredua ere. Lehen, familiak hartzen zuen adinekoen zaintzaren ardura osoa; baina, orain, gehienek zaintzaile bat dute etxean, emakume atzerritar bat izan ohi dena. Elkarrizketatuek, ordea, ez dute nahi ez eredu bat, ez bestea. Elkarrizketatuei beren gurasoak zaintzea egokitu zaie, baina badakite seme-alabek ez dituztela beraiek modu berean zainduko: "Nik uste det txipe guk ere aldatu behar deula, eta jun behar deula pentsatzen ze soluzio eman gure bukaerari. Ezin deu espero gure ondorengok gure berdiñe ingouenik". Gainera, seme-alabarik ez duten pertsonen etorkizuna ere kontuan hartu behar dela diote.

Ataungo adinekoen ingurune soziala ez da familiara mugatzen ordea, lagunarteko harremanak, bizilagunen artekoak... garrantzitsuak baitira. Adinarekin, ordea, norberaren ingurune soziala murrizten doala adierazi dute elkarrizketatuek. Adibide bat jartzearen: "Eukitzetio 8 talde WhatsApp-ekok, bihurtzea 2, etxekoa ta kuadrilakoa. Horrek beak zerbait esan nahi do. Ya bakardadea, neurri baten behintzet, badatorrela o etorri dala". Edonola ere, bakardadeari dagokionez, bakarrik bizi diren pertsonak sortzen dute kezka gehien, batez ere, adinez zaharrenak direnak eta osasun arazoak dituztenak.

ATAUNEN KOMUNITATE BIZITZA

Komunitate bizitzari dagokionez, ikuspegi pesimista nagusitzen da. Elkarrizketatuen iritziz, bizimodua geroz eta indibidualistagoa da eta horrek komunitate-bizitza egitea oztopatzen du: "Bizimodue egoistagoa da. Oain naiz NI lehenengo eta geo beste gainontzeko guztik. Eta lehenau ez ginen hola. Ginen GU, eta zan familie eta zan herrie. Baño horrek buelta osoa eman du".

Ildo beretik, Ataunen, komunitatea baino, talde desberdinak daudela adierazi dute zenbait elkarrizketatuk, eta batzuetan talde hauetara sartzeko zailtasunak egon daitezkeela: "Hemen beti esatea kuadrillismo haundie daola". Beraz, ez da harrizkoa beti pertsona berak izatea herriko ekintzetan parte hartzen dutenak.



Bestalde, herria hiru auzo sakabanatuk osatzen dute, eta ezaugarri hau komunitatea sortzeko zailtasun bezala identifikatzen dute elkarrizketatuek. Ba omen da hiru auzoen arteko etsaitasuna ere: "Ni San Martinekokin ez nijo o ni San Gregoriokokin ez nijo... Holako jendea badao". Kontrako adibide bezala, abesbatzak hiru auzoetako pertsonak biltzen ditu.

Horretaz gain, duela urte batzuk, iritzi politiko desberdinak izateak jendea asko banandu zuen. Gaur egun, harremanak hobetzen ari dira eta egoera hori gainditzen hasiak daude: "Lehen igual kalen paseatzen zendun ta etzien saludatu re iten. Eta oain jende guztikin agur, eta hau ta bestea... Hoi pixkana-pixkana gainditzen ai da behintzat, eta gauzak batea iten hasita gare". Gainera, gazteengan ez dute iritzi politikoengatik bereizteko joera hori ikusten. Hala ere, elkarrizketatuek diote oraindik asko dutela lantzeko.

Komunitate bizitzarekin lotutako beste aspektu bat, belaunaldiartekotasuna da. Elkarrizketatuen ustez, belaunaldien arteko harremanak izatea oso aberasgarria da adin guztietako pertsonentzat, baina harreman hauek eten egin dira. Beraz, interesgarria da belaunaldien arteko harremanak sustatzeko espazioak sortzea, orain ez baitago horrelakorik. Ideia horri jarraituz, adin desberdinetako jendea aisialdian elkartzeko espazio bat sortzea proposatu da: arratsalde batean xakea, hurrengoan bingoa, beste batean puzzleak... antolatzea. Bertaratzeko deialdia herri guztiari zabalduko litzaioke, baina lanketa ere eskatuko du: eskolan haurrak eta gurasoak animatu, atsedentokian jubilatua, etab. Hala ere, batzuk eszeptikoak dira, esanez gaur egun jendea lanez lepo dabilela eta ez duela denborarik hartzen herriko ekintzetan parte hartzeko. Gazteen interes falta ere sumatzen dute eta belaunaldi berriek oraingo herriko taldeei eusteko arazoak izango dituztela aurreikusten dute.

Kasu batzuetan, komunitateak parte hartzen du zaintzan, baina oso errealitate desberdinak bizi dituzte baserrian eta kalean. Baserrietan edo auzo txikietan bizi direnek harreman estuagoak dituzte bizilagunekin eta elkar zaintzen dute. Adibidez, bizilagunen etxean denbora luzez argirik ikusten ez badute, bertara joaten dira ea ondo dauden galdetzeraz, edo bizilagunek haur txikiak zaintzen dituzte gurasoek baserriko lanak egiten dituzten bitartean. Kalean berriz, bizilagunen arteko zaintza mota hau ez da hain ohikoa: "Ni bizi naiz 35 etxebizitzako bloke baten eta eztaukeu harremanik aldamenekokin, eta gañea nahi ere ez. Eta ze bakarrik sentitzen zean eh, ze bakarrik...". Harreman horiek sortzeko dedikazioa behar da, denbora eskaini behar zaie; baina, elkarrizketatuek dioten moduan, bizimodua geroz eta azkarragoa eta indibidualistagoa denez, zaila da harreman horiei eustea.

ZAINTZA LANAK / EGOERAK

Aurretik azaldu bezala, kasu gehienetan, familia arduratzen da zaintzaz, batik bat, familiako emakumeak. Baina familia eta zaintza ereduak aldatzen ari dira eta, are gehiago, aldatu egin behar direla uste dute elkarrizketatuek. Izan ere, zenbait elkarrizketaturi adinekoak zaintzea egokitu izan zaio, baina beraiek ez dute horrela zainduak izan nahi, ez diete seme-alabei beraiek zaintzeko lana edo ardura eman nahi: "Gogorra da, baino halako pixue eaman det gañen, nere ama, nere suegra... ba oain ya eztet nahi" edo "Nik eztet nere alaba nei lotuta nahi".



Kasu askotan, familiak ezin du zaintzaren ardura osoa bere gain hartu eta zaintzaile bat kontratatzen du, baina horrek ere zailtasunak ditu. Adibidez, Ataun bezalako herri txiki eta sakabanatu batean, kotxea ezinbestekoa da alde batetik bestera mugitzeko, baina zaintzaile gehienek ez dute kotxerik edo karnetik izaten. Askotan, zaila izaten da zaintzaile bat topatzea eta, prozesua errazte aldera, jendeak paperik gabeko pertsonak kontratatzen ditu zaintza lanak egin ditzaten (pertsona hauek emakume latinoamerikarrak izan ohi dira). Egoera honetan dauden zaintzaile gehienek tratua ona jasotzen dute, hau da, kontratu legalik izan ez arren, lan-baldintza duinak dituzte (adostutako soldata, eguneko denbora librea, oporrak hartzeko aukera...). Baina beste kasu batzuetan ez da horrela izaten: zaintzaz arduratzen diren pertsona hauek paperik gabe daudenez, lanpostu bat lortzeko aukera gutxi dute, eta bada horretaz aprobetxatu daitekeenik. Zaintzaile hauek lanean esplotatuak izateko arriskua izaten dute. Paperik gabeko jendearentzat aukera bat izan daiteke, hauek gabe lana aurkitzea oso zaila baita gaur egun; eta modu honetara lan bat eta aterpea eskuratzen dute.

Zaintzaileen lan-baldintzak edozein direla ere (kontratua izan edo ez, soldata ona izan edo ez...), zaintza-eredu hau bidegabetzat hartu dute zenbaitek elkarriketetan. Alde batetik, zaintzaile hauek ez dute beraien bizitza-proiektuak aurrera eramateko aukerarik: "Emakumeek zaintza horietan beaien bizitzak eten iten dituzte erabat". Beste aldetik, zaindua izaten ari denarentzat ere tristea da 24 orduz pertsona berarekin bakarrik egotea, beste batzuekin harremantzea garrantzitsua baita. Hori guztiaz gain, hizkuntzaren erronka dago. Zaindua izaten ari denak aukera izan behar luke bere hizkuntzan, kasu honetan, euskaraz, komunikatu ahal izateko; baina zaintzaileek normalean gaztelaniaz soilik hitz egiten dute: "Bakit oso zaie dala, baino hain-hain garrantzitsue iruitzen zait adineko pertsona batek bere hizkuntzan bere beharrak adierazteko aukera izatea...". "Ipurdie garbitu behar diazu ta zu nei ai zea hizkuntza arrotz baten hitzeiten". Eta, azkenik, zaintzaile bat kontratatzea ez dago edonoren esku, guztiek ezin baitute soldata bat ordaindu. Beraz, zaindua izateko eskubidea norberaren baliabide ekonomikoen menpe ez egotea ere aldarrikatzen dute elkarriketatuek.

Aipatutako bi ereduak (familiak zaintzea eta etxeko zaintzaile bat kontratatzea) gairatu eta zaintzaren inguruan erabakitzeak aukera aldarrikatzen dute elkarriketatuek: "Inportantea da jendeak aukera desberdinek eukitzea ta ez izatea 'hau ite deu ezteulako beste erremedioik'". Zaintzak gizartearen ardura kolektiboa izan behar du eta, horretarako, ezinbestekoa da zerbitzuak eta baliabideak jartzea: "Jenden zaintza ezin dola familiko gertukonen ardura bakarrik izan. Nik ustet hor gizarte bezela ardura kolektibo bat daula eta denoi dagokiula elkar zaintzea, ta hortako behar dien bitartekok jartzea".

Izan ere, zaintzaren modeloa trantsizio batean dagoela baloratzen dute. "Alde batetik: zainketen profesionalizaziora goaz, eta bestetik, emakumeok egindako zaintzak kultur inposaketa bat izan dela kontutan harturik eta testuinguru horretan, emakumeok gure eskuzabaltasuna, elkartasuna eta egiten jakitea demostratu dugu. Baina, orain, modelo hori amaitu da, zaintzak "ez-formalak" emakumeen arazoa izateari utzi behar da eta guztion arazoa izatera pasatu behar dira. Gaur egungo zaintzak genero-berdintasunaren kontextuan baino ezin dira onartu."



Nola zainduak izan nahi duten pentsatzean, elkarrizketatuek argi dute herrian bertan geratu nahi dutela. Izan ere, sozializatzea garrantzitsua da, baina adinarekin geroz eta zailagoa bihurtzen da auto-bazterketa dela eta. Horregatik, ez da komenigarria herriko harremanak moztea: "Sozializatze hoi oso komenigarrie da ta adinen aurrea zoazen eran hoi gehiagotzen ezta juten, gutxitzen jutea. Ordun, zure eremutik ateatze zeanen... Baztertzen jute zea, ta zu baztertze bazea inor etzaizu juten".

Herrian bertan zainduak izateko aukera desberdinak egon daitezke: eguneko zentroa, etxebizitza komunitarioak, etab. "Pertsonaren bizilekuak eta bizi den komunitateak izan behar dute beti jarduera-oinarria. Zahartzaroa prozesu bat da, eta zaintzak progresiboak eta dinamikoak izan beharko dira. Autonomiatik hasita eta intentsitate haundiagoko zerbitzura: etxeko zerbitzatuak, eguneko arreta, eguneko zentro eta azkenean , egoitzak". Baina aurrerago sakonduko dugu aukera hauetan.



ZAURGARRITASUNA-ZAINTZAK-BAKARDADEA

Ataungo adinekoen artean egoera pertsonal oso desberdinak daude eta, elkarrizketatuen ustez, garrantzitsua da aniztasun hau sakonago ezagutzea. Adineko gehienek badute harremana familiarekin eta beste herritarrekin, baina gutxi batzuk isolatuta daude. Gizarte langilearen hitzetan, isolatuta dauden pertsona hauek profil jakin bat dute: gizonezko ezkongabeak izan ohi dira. Pertsona hauek bizitza osoa beraien kasan egin dute, baina adinarekin geroz eta zailtasun gehiago dituzte beraien bizimoduarekin jarraitzeko. Zerbait gertatzen zaienean jartzen da arreta pertsona hauengan, eta gizarte zerbitzua orduan ohartzen da zein egoeratan bizi izan diren. Gainera, profil honetako jendeari asko kostatzen zaio gizarte zerbitzuek eskainitako laguntza onartzea.


Beste elkarrizketatu batek ere antzekoa dio. Duela urte batzuk Cáritas-ekin etxez etxe joaten ziren 80 urtetik gorako pertsoneri konpainia egiteko asmoz, baina gehienek ez zuten nahi eta egiteari utzi zioten. Horregatik dio batzuek ez dutela laguntzarik nahi: "Gauza bat da baztertuta egotea eta bestea da ez uztea laguntzen, hoi re badao".

Etxetik oso gutxi ateratzen diren adinekoak ere badaude (osasun arazoak dituztelako, gaixorik daudelako...) eta pertsona hauek kezka sortzen dute. Are gehiago baserri sakabanatuetan bizi direnek, hauek baitute herriko bizitzatik aparte eta isolatuta geratzeko arrisku gehien. San Martinen, aldiz, menpekotasun handia duten pertsonak ere kalean ikusten direla diote (paseoan, erosketak egiten, etab.).

ATAUNGO BALIABIDEAK, GUNEAK ETA EGITURAK

Ataunen hainbat baliabide daude adineko pertsonen beharrei erantzuteko, horien artean, gizarte zerbitzua. Pertsona bat adinagatik adimena galtzen hasten denean edo beste edozein arazo suertatzen zaionean (iktus bat, esaterako), gizarte langileak pertsona honen menpekotasun egoera baloratzen du eta legeak ezarritako hiru menpekotasun graduetako bat esleitzen dio pertsonari: lehenengo graduarekin pertsona nahiko autonomia da eta, laguntzarekin, bere etxean bizitzen jarraitu dezake; bigarren graduan, progresiboki okertzen doa pertsonaren egoera; eta hirugarren gradua erabat dependienteak diren pertsoneri ematen zaie. Bizi-esperantza handitzen ari denez, geroz eta jende gehiago dago hirugarren graduan. Zaintza oso intentsiboak behar dituen jendea da (denbora osoan dute norbaiten beharra), beraz, jendeak erresidentzietara jotzen du edo etxeko zaintzaile bat kontratatzen du. Aurretik azaldu bezala, ordea, elkarrizketatuek beste zaintza eredu batzuk nahi dituzte, herrian bertan emango dietena erantzuna egoera hauei.

Helburu horri begira, duela urte batzuk eguneko arreta zerbitzua jarri zen martxan Ataunen, "ze ikusten gendun hemen zeola adin bat eta hemengo jendea juten zala behera, Ordizia eta eztaikit noa, eta hemen etzeukela erantzun bat". Eguneko arreta zerbitzua autonomia maila altua duten pertsonentzat (edo lehenengo gradua dutenentzat) dago pentsatuta, eta begirale/laguntzaile batek bakoitzaren aukerei egokitutako jarduera desberdinak proposatzen ditu (memoria lantzeko ariketak,



eskulanak...). Ataunen talde txiki batekin egin zuten lehen saiakera, baina COVID-19 pandemian bertan behera geratu zen proiektua eta ez da saiakerarik egin berriro martxan jartzeko.

Elkarrizketatu batzuen ustez, proiektuak ez zuen aurrera jarraitu jendeak uste zuelako eguneko arreta zerbitzua menpekotasun handia duten pertsonei soilik bideratuta zegoela. Ildo beretik, gizarte langileak dio, hasieran martxan jarri zenean, zerbitzu ezezagun bat zela eta horrek deskonfiantzak eta beldurrak eragin zituela balizko erabiltzaileengan. Horregatik, proiektu hau berrartu nahi bada, lanketa bat egin beharko da herritarrekin: zerbitzuak zer eskaintzen duen azaldu, jendea parte hartzera animatu, etab.

Eguneko arreta zerbitzuaz gain, herritarrek antolatutako ekimen batzuk ere sortu ziren, baina hauek ere ez dute jarraipenik izan. Horietako bat, ibilaldi antolatuak izan ziren: herritar talde bat elkartzen zen ibilaldiak batera egiteko, eta ibilaldi motza, ertaina eta luzea zituzten bakoitzaren aukeretara egokitzeko. Hasieran jende asko joaten bazen ere, geroz eta gutxiago ziren eta, azkenean, ibilaldi hauek egiteari utzi zioten. Beste proiektu bat, "bazkarien inizatiba" izan zen: talde baten bazkariak prestatzen zituen, bazkari hauek bertan jateko edo etxera eramateko aukera zegoen, eta prezioa oso merkea zen. Baina bazkarien inizatibak estigma bat sortu zezakeen bazkaria hartzera joaten zirengan ("hau bakarrik dago, honek ez daki..."), beraz, geroz eta jende gutxiagok hartzen zuten parte eta, azkenean, hau ere bertan behera geratu zen.

Ekimen honi potentziala ikusita, elkarrizketatu batzuk bazkarien inizatiba birformulatu eta jantoki komunitario bat sortzea proposatzen dute. Jantoki hau ez litzateke beharra dutenei soilik bideratuta egongo, herri osoari baizik, eta, modu honetan, ez luke estigma bat sortuko. Gainera, herrian bertan ekoizitako produktuak erabil litezke bazkariak prestatzeko. Beraz, herritarrek elkartzeko eta komunitatea sortzeko espazio bat izateaz gain, herriko ekoizleak bultzatzeko eta osasuntsu jateko aukera ere eskaini dezake jantoki komunitarioak.

Azkenik, herriko irratia eskaintzen dituen aukerei ere egin zaie aipamena. Herriko irratia etxean bakarrik dauden adinekoei konpainia egiteko balio dezake, eta baita adinekoak herriko bizitzaren parte egiteko ere (irratsaioetan parte hartzera gonbidatuz, adibidez).



ATAUNEN HERRI ERRONKAK

ZAINTZA

Aurreko ataletan azaldutakotik ondorioztatu daitekeen bezala, Ataunen erronka nagusietako bat zaintza da. Gizartea aldatzen ari da eta baita zaintza eredu ere: "[Etorkizunean] baldin badago zaintza bat, izango da profesionala. Edo zure edadekokin zerbait antolatuta. Baño ezin degu pentsatu familiariko bat, hau da, seme-alabak egon behar diela. Porque yo creo que eso es imposible, ya ez dago". Horregatik, zaintza bermatzeko eredu desberdinak pentsatu behar dira, gaur egungo ereduak (erresidentziak, familiar, etxeko zaintzaile bat izatea...) agortuta baitaude elkarrizketatuen ustez. Gainera, harreman sozialek eta komunitatearen parte izateak pertsonen ongizatean duten garrantzia kontuan hartuta, beharrei herrian bertan erantzutea aldarrikatzen dute elkarrizketatuek.

ETXEBIZITZA KOMUNITARIOAK

Elkarrizketetan atera den aukera bat etxebizitza eredu desberdinetan pentsatzea da, adibidez, etxebizitza komunitarioetan. Hauetan, norberak bere espazio pribatua izango luke, baina espazio batzuk amankomunak izango lirarteke (sukaldea edo egongela, adibidez). Etxebizitzaren baitan zerbitzu partekatuak egongo lirarteke, behar desberdinetara egokitu daitezkeenak, eta, behar izanez gero, baita zaintzaileak ere. Modu honetan pentsatuta, etxebizitza komunitarioak, zaintza bermatzeaz gain, bakardadeari aurre egiteko modu bat ere badira, egunerokotasunean jendearekin harremantzeko aukera ematen baitute. Horrelako etxebizitza bat eraikitzeke kooperatiba bat sortzearen ideia ere aipatu da elkarrizketetan, administrazio publikoarentzat zeregin zaila izan daitekeela aurreikusita.

Edonola ere, etxebizitza komunitarioek ez dute zertan aipatutako ezaugarriak zehatz mehatz bete beharrik, herritarren behar eta aukeretara egokituko diren ereduak sortzea baita helburua. Bestalde, elkarrizketatuek diote horrelako proiektu bat aurrera eramateko lanketa handia egin beharko dela, izan ere, norberak nahiago du bere etxean bizi (autonomia den bitartean behintzat).

EGUNEKO ARRETA ZERBITZUA / EGUNEKO ZENTROA

Elkarrizketa guztietan aztertu den beste aukera bat eguneko arreta zerbitzua edo eguneko zentroa da. Gizarte langilearen hitzetan, eguneko arreta zerbitzua autonomia altua duen jendeari zuzenduta dago. Eguneko zentroa berriz, menpekotasun gradu guztietako jendeari dago zuzenduta (normalean lehenengo eta bigarren menpekotasun gradua duten pertsonak joaten dira). Elkarrizketatuen artean ordea, eguneko arreta zerbitzua eta eguneko zentroa nahasteko joera daude. Hau da, elkarrizketatuek ez daukate argi bakoitzak zein zerbitzu eskaintzen dituen edo zein profiletako jendeari dagoen bideratuta, beraz, eguneko zentroa aipatzen dutenean, eguneko arreta zerbitzuarekin lotura handiagoa duen zerbitzu baten inguruan ari dira batzuetan.



Aurretik azaldu bezala, duela urte batzuk eguneko arreta zerbitzua jarri zen Ataunen, baina, pandemiarekin bertan behera geratu ondoren, ez zen berriro martxan jarri. Orokorrean, elkarrizketatuek diote mota honetako zerbitzu bat izatea beharrezkoa dela adinekoak herrian bertan zaindu ahal izateko, baina zerbitzu honek izan beharko litzukeen ezaugarriek eztabaida sortzen dute. Esaterako, elkarrizketatu batek eguneko zentro tradizionalaren alde egiten du, esanez alzheimerra zuen bere ama bizkortu egin zela eguneko zentrorra joaten hasi zenean. Beste batzuen ustez, ordea, eguneko zentroak pasiboegiak dira erabiltzaileentzat, eta beste arreta mota bat jasotzea gustatuko litzaike. Pasibotasun horrekin lotuta, "ezin du kartzela bat izan" dio beste elkarrizketatu batek. Batez ere, eguneko zentroak herriarekin lotura izan behar duela aldarrikatzen dute. Hau da, eguneko zentroaren erabiltzaileek herriaren parte aktibo izan behar dutela, herriko bizitzan, ekintzetan, taldeetan... parte hartuz. Adibidez, auzolanean parte hartuz bakoitzaren gogo eta aukeren arabera.

Eztabaida hauetatik ondorioztatu daitekeenez, elkarrizketatuek eguneko zentroa dependentsia maila altuko jendea gainontzeko pertsonengandik isolatzen duen zerbitzu bat bezala irudikatzen dute. Horregatik, espazio anitzago bat nahi dute, autonomia maila desberdinak dituen jendea elkartzeko aukera ematen duena eta pertsona hauei komunitatearen parte aktibo izaten jarraitzea ahalbidetuko diona.

Idea horri jarraituz, gizarte langileak dio eguneko zentroa eta eguneko arreta zerbitzua batzen dituen espazio misto bat sortu daitekeela: eguneko arreta zerbitzua autonomia maila altua dutenentzat eta eguneko zentroa dependienteagoak direnentzat. Legez, bata Udalarena eta bestea Diputazioarena direla dio, baina praktikan batu daitezkeela. Mota honetako espazio misto batek zerbitzu batetik besterako pausoa modu naturalagoan emateko aukera ere eman dezake gizarte langilearen ustez.

Eguneko zentro/eguneko arreta zerbitzu honek, oso irekia eta malgua izan beharko du (ordutegi aldetik, jarduera aldetik...), izan ere, hasiera batean jendeak zerbitzu ezezagunekiko deskonfiantza izan dezake (aurretik gertatu zen bezala). Ezin du zerbitzu zurrun bat izan eta jendeari aukera eman behar zaio nahi duen denboran egoteko (agian egunero ez, baina astean bitan bai, edo egunean ordubete bakarrik...). Eguneko zentro tradizional batek ez du aukera hori ematen, erabiltzaileek ordu asko pasatu behar izaten baitituzte bertan. Izaera barnerakoa duten pertsonentzat gehiegizkoa izan daiteke hainbeste denboraz hainbeste jenderekin egotea, beraz, zerbitzu malguago batek aukera ematen du norberaren izaerara moldatzeko.

Honekin lotuta, beste zailtasun bat identifikatzen dute elkarrizketatuek, Ataungo betiko erronka, hau da, herria hiru auzo sakabanatutan dagoela banatuta. Batzuen ustez, eguneko zentroa/eguneko arreta zerbitzua jarriko balitz, posible izango litzateke garraio zerbitzu bat jartzea auzoetako jendea etxetik zentrorra eta zentrotik etxera eramateko. Beste batzuen ustez, ordea, zerbitzu guztiek ezin dute San Martinen zentralizatu, auzo bakoitzean egon behar luke zerbaitek. Beraz, agian ez genuke espazio bakar batean pentsatu behar, baizik eta auzoka antolatutako topagune desberdinetan. Gainera, agian, dagoeneko existitzen diren espazioak baliatu daitezke zerbitzu hauek emateko: "Igal behar die gauza txikigok eta funtzionalagok. (...) Eta ze zerbitzu eman behar da? Akaso dauden elkarten bidez eman daitezke zerbitzu hoiek".



ETXEETAKO ZAINZAILIEN EGOERA

Aurreko bi proposamenak epe luzera begira daude, baina bada oraintxe bertan kezka sortzen duen beste auzi bat: etxeko zainzaileen egoera. Aurretik azaldu bezala, Ataungo familia askok pertsona bat kontratatzen dute (emakume latinoamerikarrak izan ohi dira) adineko bat 24 orduz zaintzeko. Berez lan prekarioa izateaz gain, kasu batzuetan, emakume hauek ez dute kontratu legalik izateko aukerarik (paperik ez dutelako) eta, horrek, lan-baldintza are kaskarragoak izatea ekar liezaieke.

Bestalde, aurretik aipatutako hizkuntzaren arazoa dago. Elkarrizketatuen ustez, garrantzitsua da zaindua izaten ari den pertsonak bere beharrak bere hizkuntzan adierazteko aukera izatea. Baina, aldi berean, argi dago zaintza lanetan aritzen direnen lehentasuna ez dela euskara ikastea. Izan ere, egunean bi ordu libre bakarrik izanda, ez dute uste inork denborarik, indarririk edo gogorik izango duenik hizkuntza berri bat ikasten hasteko; ez pizgarri garrantzitsurik ez badute behintzat.

Hori guztiaz gain, zainzaile hauek Ataungo etxeetan bizi diren arren, ikusezinak dira gainerako herritarrentzat, ez dira herriko bizitzaren parte. Eta baserrietan bakarrik bizi diren adinekoak zaintzen dituztenak are isolatuago eta baztertuago daude. Beraz, beste erronketako bat emakume hauek komunitateko kide egitea da.

Erronka guzti hauei aurre egiteko, zaintza kooperatibaren ideia sortu da. Beste toki batzuetan (Katalunian eta Hernanin, adibidez) dauden ereduak aztertu daitezke, gauzak egiteko beste modu batzuk ezagutu eta Ataungo egoeretara egokitu ahal izateko. Adibidez, pertsona bat etxe batean 24 orduz egon ordez, bi edo hiru pertsona egon daitezke txandaka.

Edonola ere, ezereen aurretik, emakume hauei eman behar zaie hitza. Beraiek dira zein behar dituzten, zer nahi duten, zein aukera ikusten dituzten... esango dutenak. Ildo beretik, garrantzitsua da zaintza lanetan aritzen diren pertsona hauek elkarrekin saretzea, beraien esperientziak, kezkek eta abar konpartitu ahal izateko.

BELAUNALDIARTEKOTASUNA

Beste erronka orokorra adin eta belaunaldi desberdinetako pertsonen arteko harremanak sustatzea da. Izan ere, belaunaldi desberdinak banatuta daude, ez dituzte espazioak ere partekatzen (adibidez, koruan denak jubilatutako dira eta festak antolatzen dituzten guztiak, berriz, gazteak).

Elkarrizketatuen ustez, gizartea geroz eta indibidualistagoa da, eta gazteek "gauzek iteko beste modu bat" dute. Ataun herri aktiboa da, hau da, ekintza desberdinak antolatzen dituzten zenbait elkarte daude herrian. Baina elkarte gehienetan adineko jendea dabil eta etorkizunean arazoak izango dituzte elkarte hauei jarraipena emateko. Izan ere, gazteak ez dira herriko taldeetara "engantxatzen", interes desberdinak baitituzte.



Dagoeneko saiakerak egin izan dira adineko pertsonak eta haurrak elkartzeko. Adibidez, atsedentokia eta eskola harremanetan zeuden: adinekoak eskolara joan izan dira (ipuinak kontatzera, taloak egitera...) eta baita haurrak atsedentokira ere. Elkarrizketatuen ustez, horrelako ekimenek adinekoen jakintzak baloratzeko eta gazteei transmititzeko balio dute, baina hurrekin lantzea ez da nahikoa, transmisioa eten egiten baita gazteekin ere lantzen ez bada. Horregatik, garrantzitsua da gazteengan ere eragitea.

HARREMAN SOZIALAK

Behin baino gehiagotan aipatu dugun bezala, harreman sozialak ezinbestekoak dira bizitza betea izateko, baina adinarekin geroz eta zailagoa da harremanei eustea edo harreman berriak sortzea, eta bakardadea arazo larri bat bihurtu daiteke. Hori dela eta, erronketako bat adineko pertsonen harreman berriak sortzen edo lehengo harremanei eusten laguntzea izango da: "Zahartzarora aiatze gea ta bakardade haundie dau. Ordun, erronka litzeke hemen beize harremanak eta zeatzea". Eta, horretarako, talde jarduerak antolatzea proposatzen da: jarduera kulturalak, ikastaroak, mendi irteerak edo ariketa fisikoa egiteko taldeak, etab.

Baina nola integratu herrian pertsona zaugarrienak, autonomia gutxien dutenak edo mugatuena daudenak? Izan ere, pertsona hauek (hirugarren menpekotasun gradua dutenak, adibidez) baztertuak izateko arrisku handia dute. Horren aurrean, elkarrizketatuek diote egoera hauetan dauden pertsonak ere herrian bertan zaindu behar liratekeela. Euren buruak egoera horretan irudikatzean, argi daukate ez dutela Ordiziako edo Lazkaoko erresidentzia batera joan nahi, horrek, herriarekin duten lotura errotik moztuko bailuke: "Etxetik igual ateako naiz, baño herrin nahiko nuke. Saludatze zaitudala zuri, ta bestei...". Herrian bertan geratu ahal izateko, ordea, ezinbestekoa da zerbitzu eskaintza zabalagoa izatea (aurretik azaldutako eguneko zentro/eguneko arreta zerbitzua, adibidez).



ATAUNGO UDALAREN PAPERA 3. ADINEKO PERTSONEKIN

Elkarrizketatuen ustez, udalak aldaketaren motorra izan behar du, proiektu berriak sustatuz, gestioez arduratuz, etab. Baina, aldi berean, herritarren partehartzea eta inplikazioa ezinbestekoak dira proiektuek aurrera egin nahi badute. Beraz, udalaren eta herriaren arteko lankidetzaz garrantzitsua da.

ZERBITZUAK

Hirugarren adineko pertsonen beharrei lotuta, zerbitzuen esparruan eragin dezake Udalak (batzuetan beste erakunde batzuk ere tartean dauden arren).

Hasteko, gizarte zerbitzua aipatu da elkarrizketetan. Gizarte langilea astean bitan egoten da herrian, eta prebentzio lanaz eta informazioa emateaz arduratzen da. Baina, bera bakarrik dagoenez (ez du laguntzailerik, ez administraririk), lan-administratibo gehiegi dauka. Beraz, ez du denborarik etxez etxe joan eta balorazioak egiteko; ezta jarduerak antolatzeko ere. Eskari handia dago eta bulegotik ateratzen bada zerbitzua blokeatzen da, ez baitago beste inor telefonoa hartzeko. Horregatik, lan-ordu gehiago beharko lituzke bulegotik kanpoko lan horiek egin ahal izateko: herriko beste eragile eta zerbitzuekin koordinazioa eta talde-lana, batez ere. Udala egoeraren jakitun da eta agintaldia amaitu aurretik ardura hau indartzeko asmotan dabil.

Horretaz gain, elkarrizketetan aipatu da interesgarria litzatekeela gizarte arloko beste zerbitzu batzuk izatea herrian: aurretik aipatutako eguneko zentroa/eguneko arreta zerbitzua edo pisu tutelatuak, besteak beste. Gainera, inguruan profesional gehiago behar dira: "Zaintzaileak badaude, baino nik ustet eon beharko zala otro tipo de técnicos alrededor: pues apoyo psicológico, fisioterapia... Incluso un asesoramiento de tipo jurídico". Ideia honekin lotuta, atsedentokiko erabiltzaileek uste dute atsedentokia bera erabili daitekeela zerbitzu desberdinak eskaintzeko (adibidez, astean behin podologo bat joan daiteke bertara).

Gizarte zerbitzuaz gain, elkarrizketatuek beste zerbitzu batzuk ere aipatu dituzte, esaterako, medikua. Biztanle kopuruagatik Atauni sendagile bakarra egokitzen zaion arren, herritarrek bigarren sendagile bat jartzea lortu zuten, baina orain kolokan omen dago. Elkarrizketatuen ustez, garrantzitsua da herrian bi sendagile izatea, bat bakarra ez baitzen aski, eta adineko jendearentzat zaila izan baitaiteke beste herri batzuetara mugitzea medikura joateko.

Osasunaren gaiarekin jarraituz, Ataunerako interesgarria izango litzatekeen beste zerbitzu bat Kirol Orientatzaile Zerbitzua (KOZ) da. Honakoa, ariketa fisiko egokitua eskaintzen duen zerbitzu bat da, talde txikietan eta aurrez aurre egiten dena. Diputazioak, Osakidetzak eta Udalak bultzatutako plan bat da eta osasun etxetik bideratzen da.



Azkenik, beste kezka bat agertu da ere elkarrizketetan: Kutxa abuztuan zehar itxi ez dadin eskatzen dute, izan ere, adineko batzuk ez dira ondo moldatzen txartelarekin ordaintzeko eta beste herri batera mugitzeko ere arazoak izan ditzakete.

ETORKIZUNEN ZAHARTZAROAZ HAUSNARTZEN

Garrantzitsua da norberak bere zahartzaroa nolakoa izatea nahi duen irudikatzea eta adieraztea. Horretarako, Diputazioak dokumentu bat sortu zuen, norberaren borondatea adieraztea duena helburu (etorkizunean zer nahiko duten, zer ez...). Adibidez, gizarte langileak ezagutzen zuen pertsona batek honela zioen: "A mí, si ya estoy mayor que no me entero mucho, no quiero que jamás me pongáis un chandal". Dokumentu honek norberaren etorkizuna irudikatzen lagundu dezake, izan ere, pentsatu ere egin ez ditugun gauzen inguruan hausnartzen lagundu diezaguke: "Oso ondo dago ze igual norberak ere ez du pentsatu hainbeste o dauke ideia bat baño no lo tiene tan definido edo pentsatuta. Eta oso ondo dago porque llega a lo más personal". Familiarekin ere landu daiteke; modu horretan, familiak badaki pertsonak zer nahi duen eta hori ahal den neurrian betetzen saiatu daiteke.

Adineko pertsonen kasuan askotan gertatzen da beste norbaitek (famiak gehienetan) bukatzen duela norberaren bizitzaren inguruko erabakiak hartzen: "Edadeko pertsonakin, nahiz eta autonomoa izan, ez zea gauzetaz enteratzen lehen bezala eta azkenean zure izenean erabakiko dute, gehiegi". Erabakiak hartzen dituenak adineko pertsonarentzat onena zer izango den pentsatuz jokatzeko badu ere, garrantzitsua da norberaren borondatea errespetatzea, eta dokumentu hau borondate hori adierazteko modu bat izan daiteke.

Elkarrizketa batean baino gehiagotan aipatu da norbera aurrerago proiektatzeko izaten den zailtasuna, eta nola prestatu zahartzarorako; aurretik egin behar diren hausnarketa eta lanketak... bereziki aurreko eredia jada balio izango ez duenean eta berria edo izango dena asmatu behar den honetan. Norabide honetan aipatu da formazio beharra, hausnarketara lagunduko duten hitzaldiak, inspiratzaileak izan daitezkeen esperientzia eta adibideak ezagutzea... Eta ondoren, Ataungo errealitatera ekarri, tokiko beharrei eta nahiei erantzuna eman ahal izateko.



ONDORIOAK

Datozen lerroetan orain arte jasotakoaren laburpen bat egin da ondorio moduan.

ZAHARTZARO EREDUA GAUR EGUN

Ataungo adinekoen artean egoera desberdinetan bizi den jendea dago. Desberdintasun hauek autonomia mailaren, adinaren, generoaren eta bizi diren auzoaren arabera sailkatu daitezke.

Elkarrizketetan nabarmendu da pertsona nagusien taldea ez dela homoginoa. Pertsonen autonomia mailak baldintzatzen du nagusiki pertsona hauen bizitza. Zentzu honetan bizitza asko aldatu da eta autonomia horren galera handiena 80 urteen bueltan kokatzen dute.

Bestalde, generoari ere erreparatu diote elkarrizketatuek. Emakumezkoak besteen zaintzari lotuta egoten dira, eta batzuetan emakumezkoek laguntza behar dutenean eskaera hori ez da horren azkar bideratzen. Aldiz, orokorrean gizonezkoak ez dituzte besteen zaintzara horren lotuta ikusten eta laguntza errazago eskatzen dutela baloratzen dute.

Generoaren arrakalak badu ere beste ertz bat, depende non bizi zaren autonomia maila horri eusteko zailtasunak edo erraztasunak ez baitira berdinak. Zentzu honetan elkarrizketetan auzoen arteko bizimoduari erreparatu diote, isolamendua handiagoa da zenbait auzo eta mendiko baserrietan; honek zailtasunak ekartzen ditu hain bat zerbitzuen erabilerarako eta isolamenduan eragina izan dezake. Izan ere, bizitza beteak ideiaren atzean harreman sozialetan jarri dute azpimarra elkarrizketatutako pertsonak eta distantzia honek zuzen zuzenean eragiten dio aspektu honi.

Bizitza betearen ideiaren beste osagaiak norberarentzat denbora izatea eta hau nahi bezala xahutu eta erabakiak hartzeko aukera izatea dira elkarrizketatuen iritziz. Ideia hauei norberaren zaintzaren garrantzia gehitu behar zaio: ariketa fisikoa eta burua lantzea garrantzitsuak dira bizitza betea izateko.

Bestalde, jubilazioa bada etapa berri bat pertsonen bizitzan eta honek aldaketa handiak ekartzen ditu. Norabide honetan tarteka egoera berrira egokitzeko zailtasunak sor daitezkeela aipatu dute batek baino gehiagok: bereziki gizonezkoengan identifikatzen dute egoera hau, beraien rolei oso lotuta egon delako (eta dagoelako oraindik) kanpoko lana.

Elkarrizketatuak bat datoz familia identifikatzen hirugarren adineko pertsonen zaintzaren oinarri nagusi bezala. Ataunen familia-harreman estuak mantentzen dira; horrela, adinekoak familiako txikien eta oraindik adinean zaharragoak direnen zaintzan inplikatzeko dira. Gainera, adinekoak etxean mantentzeko joera nagusitzen da. Nagusiki, emakumezkoak izaten dira pisu handiena hartzen dutenak zaintza horretan.



Edonola, elkarrizketatuek errealitatea hau dela onartuta, auzitan jartzen dute egoera honen etorkizuna. Hau izan da orain arteko zaintza eredu, baina bizitza asko aldatu da eta zailtasunak sortzen hasi dira eredu horri eusteko. Lehen familiak (etxeko emakume eta alabek) hartzen zuen zaintzaren ardura osoa, orain familia askok kanpoko zaintzaile bat hartzen dute: gehienetan emakumezkoa eta atzerritarra. Gaur egungo emakume edadetu askok gainera ez dute bat egiten eredu honekin, ez da hori nahi dutena beraien alabentzat. Honek guztiak bestelako pentsamolde eta konponbideak behar dituela aipatzen dute elkarrizketatu askok.

Familiatz aparte, ingurune sozialari ematen zaio garrantzia. Baina urteetan aurrera egin ahala, ingurune hori txikitzen joaten da eta bakardaderako arriskua handitu egiten da. Honek sortzen du kezka handiena, bakarrik bizi diren pertsonak eta osasun arazoak dituztenak.

Bestalde, komunitatea ez dute indartuta sentitzen: indibidualismoaren garaian bizi garena sentitzen dute. Komunitatea baino komunitateak daudela sentitzen dute. Eta hauek ere depende non bizi zaren baldintzatuta: auzoak, baserriak, erdi-gunea... Zatiketa espazial horrek desberdinen arteko harremanak baldintzatzen ditu; baita ere harreman hauen intentsitatea. Belaunaldien arteko harremanei garrantzia ematen diete, hauek galdu egin direla sentitzen baitute, eta hauek berreskuratzeko ekimenak abiatzea proposatzen dute, besteak beste, egun dagoena galtzeko arriskua ikusten da eta: inplikatu al dira belaunaldi berriak jada existitzen diren talde eta ekimenetan?

Edonola, zaintza lanei dagokionez, zerbitzu eta eredu berrien beharra aldarrikatzen da: gaur egun pisua familiaren gain gelditzen da, eta bestela kanpoko zaintzaile bat ekartzen da, zaintzaile hauek emakumezkoak izaten dira eta oso egoera prekarizatueta egiten dute lan (gehienak paperik gabe). Aipatutako bi ereduak (familiak zaintzea eta etxeko zaintzaile bat kontratatzea) gainditu eta zaintzaren inguruan erabakitzeo aukera aldarrikatzen dute elkarrizketatuek.

Bukatzeko, izan dira zenbait esperientzia aurretik landu direnak eta jarraipenik izan ez dutenak arrazoi desberdinak medio: Eguneko arreta zentroa, bazkarien ekimena eta eguneko ibilbideak. Behar bada bere garaian egin ziren bezala ez, baina beste modu batera berformulatu daitezke.

ATAUNEN HERRI ERRONKAK

Zaintza identifikatu da elkarrizketetan datozen urtetan Ataungo herriaren erronka nagusi gisa. Zaintza hau era bat lotuta ikusten dute elkarrizketatuek herriarekin eta komunitatearekin. Hau da, zaintza behar duten pertsonak bizitza betea izateko herrian behar dute zainduak izan, eta komunitatearekin harremanetan mantentzea ezinbestekoa da.



Horren baitan, zenbait proposamen edo lanketarako ildo plazaratu dituzte elkarrizketetan:

- Etxebizitza komunitarioen aukera. **Etxebizitza formula desberdinak.**
- **Eguneko arreta zerbitzua/eguneko zentroa**
 - Autonomia maila desberdinentzat
 - Erabiltzaileak herriaren parte aktibo
 - Espazio anitza
 - Behar desberdinei egokitu
 - Erabilera desberdinak eta anitzak
 - Irekia eta malgua
 - Irisgarria (auzo eta baserrietako jendearentzat). Mugikortasuna
 - Bakarra eta zentralizatua? Auzoetan?
- **Etxeko zaintzaileen egoera**
 - Lan prekarioa
 - Hizkuntza
 - Ez ote dira komunitatearen parte izan behar?
- **Belaunaldien arteko harremanak**
 - Espazio partekatuen beharra
- **Harreman sozialak**
 - Herrian mantentzearen garrantzia: zerbitzuak bertan

ATAUNGO UDALAREN PAPER 3. ADINEKO PERTSONEKIN



Udalari lidergo papera egokitzen diote, aldaketarako motorra izan beharko luke elkarrizketatuen iritziz. Baina erronka herri osoarena da, eta zentzu horretan komunitatearen lana eta rola, herritarren parte hartzea eta inplikazioa ezinbestekoa dela baloratzen dute baita ere. Erronkari aurre egiteko udalaren eta herritarren arteko lankidetzak ezinbestekotzat jotzen dute.

Laburbilduz, udalak hainbat zerbitzu sortu eta indartzeko lanak egin beharko ditu, horretarako beste administrazioekin lan egin eta aliantzak sortu beharko ditu, bakarrik ezingo baitu. Horrekin batera, herriko eragile eta taldeekin lankidetzan aritu behar du komunitatea saretu eta lotzeko, eta zenbaitetan, dinamizazio lanak ere bere gain hartu beharko ditu erronka gisa marraztu diren nahiak eta beharrak burutu behar badira.




ONDORIO NAGUSIAK IRUDIETAN

GAUR EGUNGO EZAUGARRIAK



BIZITZA BETEAREN ELEMENTUAK



Paradigma hori gainditu beharra, bizitza betearen ezaugarriei helduz

